



948MERKATUA

IRUÑA/PAMPLONA/PAMPELUNE 20.21.22 AZA. 2019
NAFARROA/NAVARRA/NAVARRE NOV. 2019

 PARTICIPA/PARTE HARTU/PARTICIPÉZ
948MERKATUA.COM

 Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

948 Merkatuak-Nafarroako Arteen Merkatua eta Profesionalen Topagunea-izena emateko epea zabaldu du diziplinarteko proiektuentzat

Abuztuaren 3ra arte, sortzaileek eta sustatzaileek beren proiektuak erregistratu ahal izango dituzte, proposamen horiek ezagutarazteko PRO (profesionala) atalean

04/07/2019

948 Merkatuak -Nafarroako Arteen Merkatua eta Profesionalen Topagunea- zabalik du dagoeneko diziplinarteko kultura proiektuak hautatzeko deialdia.

Formatu honen bidez, ikusgarritasuna, laguntza eta babesak eman nahi zaizkie sendotze aurreko fasean dauden diziplinarteko proiektuei. Izena emateko epea abuztuaren 3ra arte egongo da zabalik, <http://www.948merkatua.com> atarian, eta webgune horretan aurki daitezke parte hartzeko baldintza eta eskakizun guztiak.

20 proiektu aukeratuko dira gehienez; bi pertsonak emango dute izena bakoitzean eta ekitaldiaren komunikazio euskarrietan agertuko dira. Aukeratutako proiektuen artetik, 10 hautatuko dira azaroaren 22an Baluartean egingo den aurkezpen publikorako, 948 PRO (profesionala) atalaren barnean. Hala, deialdian aurreikusitako laguntza ekonomikoak lortzeko lehian sartuko dira. Batzorde artistiko bat arduratuko da proiektuak aukeratzeaz. Gainera, antolakuntzak espezialista baten laguntza eskainiko die hautatutako 10 proiektuei, 948 Merkatuan egingo den aurkezpen publikoa hobetzeko, formari nahiz edukiari dagokienez.

Zehazki, Antonella Broglia arduratuko da hautatutako pertsonen erakusketa prestatzen laguntzeaz. Brogliak, Italian jaioa eta Zuzenbidean doktorea, hogeita hamar urteko esperientzia dauka publizitatean eta marketinean. Besteak beste, kontseilari delegatua izan da Ogilvy & Mather Roma eta Saatchi & Saatchi España agentzietan. Europarako TEDx Senior Ambassador eta Ashoka España fundaziorako Ambassador ere izan da. Larunbatero, gizarte ekintzailetzaren inguruan mintzo da TVEren "Para todos La 2" saioan.

Hautaketa

-Aholkularitza. Aukeratutako 20 proiektuei elkarrizketa laburrak egingo dizkie antolakuntzak hautatuko duen gestio kulturalaren profesional talde batek. Aholkuak, iritziak, iradokizunak edo kontaktuak eskatu ahal izango diete.

-Aurkezpen publikoa. Aukeratutako 20 proiektuetatik, 10 hautatuko dira gehienez; berritzaileak eta potentzial handienekoak. Hautatuek aurkezpen publiko bat egingo dute 948 Merkatuaren PRO (profesional) atalean, foroan izena eman duten profesionalen aurrean. Aurkezpena azaroaren 22an egingo da, ostiralez, Baluarteko Ganbera Aretoan. Aurkezpen bakoitza hamar minutukoa izango da: bost minutu azalpenetarako eta beste bost minutu publikoarekin hitz egiteko. Aurkezpenak hamar irudiren proiektioaz lagunduta egingo dira.

-Laguntza ekonomikoa. Aukeratutako 10 proiektuen artetik, profesional taldeak 1.500 euroko hiru laguntza ekonomikoen irabazleak aukeratuko ditu, kategoria hauen arabera: Kultura eta ja-sangarritasun ekonomikoa, Kultura eta gizartea, eta Kultura eta berrikuntza.